

ZENBAT BURU

Idoia Arozena

BERBETAN

Mari Jose Zubiaurre,
haurren
tanborradako
arduraduna

GEHIGARRIA

Dekorazioa



KIROLA

Pako Iriondo,
Euskal Mendizale
Federakundeko
lehendakaria

KULTURA


Trinitate jaiak

BARREN

1999ko maiatzaren 28a
VII. urtea - 280. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Trinitateak



“Jai, jai, jai, asteak balira jai, gazte alperrak hori nahi”

1999/2000 ikasturtea

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 ikasturte)

- ▲ Proiektu Mekanikoen Garapena
- ▲ Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- ▲ Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (2 ikasturte)

- ▲ Mekanizazioa



Makina Erremintaren Institutua
San Roke auzoa, 1
20870 - Elgoibar
Tel. 943 74 41 32
E-posta: amaia@fmh.es

Aurreinskripzio epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne.



Haur Hezkuntza (2-6)

Lehen Hezkuntza (6-12)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16)

Batxilergoa (Humanistikoa eta Zientifikoa) (16-18)

Ikastola



Tfnoa: 943 744441
e-mail: elgoibar@ikastola.net



IDOIA AROZENA

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Edertasunaren esklabu

Lehen eguzki izpien epeltasuna sentitu eta depiladorari deitzea bat izan da. “Goizeko lehen orduan? Ez ba. Arratsaldean izan beharko du, berandu gainera”, “Eta bihar goizean, “Ez, ez, sentitzen dut, goizak okupatuta ditut. Beti berdina egiten duzue, azken unera arte egon eta gero denak batera deitzen duzue. Ezin abasto emanda nago!”.

Udaberriko lehen egun eguzkitsiak eta ni basurde baten pare. Ez da posible! Zer egin, atxurra pasa? Ileak irten beharrean, puntapariak aterako zaizkit! Krema? A zer zerrikeria! Gero eta fofago, gero eta zelulitis gehiago, eta gainera “pelanbrera” eta guzti joan behar al dut? Eta zergatik depilatatu behar ditut ileak nireak baldin badira? Kaka zaharra! Ba ez noa hondartzara!

Aurrekoa edo antzekoa emakume askok bizi dugu egunotan. Negu luze eta hezeari agur esateko irrikitan egon ondoren, plazer-rra, gozamina, bizipoza izan behar lukeena, sofrikario bihurtzen zaigu bainujantzia probatzearekin batera. Arroparen azpian gorderik dagoen gorputza biluztea sekula-ko arazoa da.

Bada hilabete baino gehiago “emakumeontzat” espreski kaleratzen diren aldizkari, telebistako programa, iragarki eta abarretan top-model baten gorputza lortzeko zer egin behar dugun etengabe errepikatzen ari zaizkigula. Drogerietan, farmazietan eta antzerako dendetan mila krema edo potinge, zein baino zein hobekak eskaintzen dizkigute. Garestiak direla? Edertasunaren mundu zoragarria, zorientasuna-

ren paradisua. Horren truke, zer dira milaka txanpon batzuk? Ezer ez. Beraz, garen bezalakoak, alegia inperfektoak eta zorigaiztokoak baldin bagara, errua geurea da, inperfekzioak zuzentzeko mila modu baitaude.

Mendetan zehar egokitutako esparru txiki eta mugatua gainditzen hasiak garen honetan, esklabu izaten jarraitzen dugu, itxuraren esklabu. Eta benetan zaila da egunero jasaten dugun “bonbardeo” horri aurre egitea.

Edertasuna lan egiteko tresnatzat duten emakumeen taldea txikia da oso; ederretan ederrenak lau dira, baina guztiok ezagutzen ditugu izen eta abizenaz; are gehiago, eredu bihurtu nahi dizkigute. Aldiz, milaka dira beste hainbat arlotan ari direnak; asko “top-modelak” dira sorkuntzan, inbestigazioan, irakaskuntzan... Baina apenas ezagutzen ditugun. Benetako eredu izan behar genituzkeenak ezezagunak zaizkigu eta ezagunek, aldiz, esklabu izateko bakarrik balio digute.

Donostiako neska gazte askoren ametsa arropa denda bateko dependienta xarmanta izatea da. Konsumismoa eta edertasuna elkarren eskutik.

Emakumeok gure artean hitz egiten dugunean, aldiz, ados gaude. Esklabutza apurtu behar dugu. Baina urtetako zamari eta inguruko presioari, negozioari, aurre egitea oso zaila zaigu. Argi dago hurrengo milurteko iraultzen artean hau premiazkoa dela. Bitartean, eta nire tximei dagokienez, prest nago ile eta guzti hondartzara joate-

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansoa

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga


INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



Herria zaindu

Ederki egoten da Plaza Handiko Eserlekuetan jarrita, jendearen joan etorri eta umeen jolasei begira. Horrelaxe nengoen ni ere joan den astean, bide batez inguruan nire antzera zeudenen kontuak entzunaz.

Eta zer entzuten nuen? Dena ez bada ere, batzuek behintzat honaxe ekarriko ditut, herri hobe bat egiten lagunduko dutelakoan.

“Zein polita geratu den eliza eta geratuko den udaletxea eta frontoia ere, aurpegia garbitu eta gero! Hala ere, zergatik jarri dute andamiaje hori guztia, hainbeste denboran ezer egin gabe edukitzeko? Pelotan jokatu nahi duenak, behintzat, jai dauka eta ez dakigu noiz arte”.

“Udaletxeko bulegoak dauden etxe horretan (lehen Banco de Bizkaia zenean) nola jarri dituzte egur koloreko marko horiek, besteak zuriak izanda? Niri ez zidaten utziko horrelakorik egiten. Arreta gehiago izan zezaketen!”

“Obretan dabilzan ezker, eliza aurre honetako lauza tarteko zuloak ere estali beharko lituzkete, norbaitek hanka hezurra edo muturrak apurtu baino lehen”.

Beste askoren artean, horiek dira entzun nituenak eta BARREnera jaso nahi izan ditut, gure herriaren itxura onak guztioi mesede egingo digulakoan.

K. G.

Parrokiako Misio Taldekoen eskerrak

Parrokiako Misio Taldekook eskerrak eman nahi dizkiegu “Sar zaitetz mentura zoragarri honetan” erakusketa antolatzen lagundu diguten guztiei: Udalarai, Udala Brigadako langileei, katekistei, herriko ikastetxeei eta laguntzen egon diren emakumeei. Arrakasta handiko erakusketa izan delakoan gaude eta guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eskutitz honen bitartez.

Parrokiako Misio Taldea.

Eskerrikasko guztioi

Gutun honen bitartez gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, maiatzaren 22an, Elgoibarko Itzulia egiten lagundu zuten guztiei: Kalamua Elkarteak, Karakate Elkarteak, Sa-hatzu, Iraola, Armueta, Patxi, Fraile, Landa eta Garay harategiak, Eroski, Dori, Bollar, Idarraga, Xigortze, Altzolako Urak eta Ibartziki. Besterik gabe, besarkada bat.

Morkaiko M.E.

Aranjuezetik

Hogeita hamar urte jada, herria laga Hnuela. Familia, lagunak, dena utzi behar izan nuen. Faszismoaren garai haiek, larritasunek eta urduritasunek, erbestera joatera behartu ninduten. Urte hauetan guztietan izaera tinko mantendu dut. Euskal Herriaren alde ahal nuen dena eman dut, nire nortasuna eta duintasuna mantenduz.

Preso nagoen espetxetik, Aranjuezetik, lagunoi eta herritar guztioi zuzentzen naiz, preso guztioi bizi dugun egoera eta gure eskubideen zanpaketa salatzen. Pakea lortu ahal izateko preso guztiak Euskal Herriaren behar ditugu, eta aurki kalean, hau ez da ametsa, sinesmena baizik.

Denon artean, bat eginez, demokraziari eta justiziar dagokiona sakondu behar dugu. Horretarako, gizabanakoaren eta Euskal Herriaren eskubideak aldarrikatu; sasi-demokratik begi bistara jar ditzagun eta salatu.

Hots egiten didazue denbora gutxi berru izanen diren Udala-Hauteskundeetako zerrendan aurkeztuko naizen galdetzeko. Dударik ez izan hor izango nauzuela.

Udala-Hauteskundeak oso garrantzitsuak izango dira, dudarik gabe, administrazioaren antolaketa Udaletan oinarritutakoa izango baita, (politika, ekonomia, gizarteak, kultura eta euskara) lurraldetasuna, beraz. Horretarako, ezinbestekoa izanen da herritarren eta hautagaien edo zinegotzien arteko ezagutza.

Lagunak eta borondate oneko elgoibartarrak eskertuz agurtzen naiz.

Jose Luis Ansoa Larrañaga

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**



◆ Herriko emakume bat honako kexekin etorri zaigu: “Tamalgarria da Kultur Etxe aurrean dauden Andraderen eskulturen euskarriak gorrdioz zikinduta ikusteak. **Herria apaintzeko funtzioa duten gauzak garbi mantentzeaz arduratu beharko litzateke Udala. Bestalde, Merkatu Plazaren atzeko zubiko zoluak ere konpontzeko beharra du, zuloz beteta baitago.** Orain dela gutxi zubia margotu eta farolak jarri zituzten, oso polita geratu zen, baina zuloak tapatzeko aukera paregabea galdu zutela iruditzen zait”.



◆ Irakurle batek honako kexa azaltzeko jo du guregana: **“Joan den asteko KiliBARREn Administrazio lanpostuak osatzeko jendea behar zela ikusi nuen.** Baina nire harridurarako, lana eskatzeko baldintza bat mendarotarra izatea zen. **Ez zait bidezkoa iruditzen beste herrietako jendea ez onartzea”.**

◆ Honako kexa hau bidali digu herritar batek: “Larunbatean San Lorentzon gertatu zen istripuak kexa hau idaztera bultzatu nau. **Azkenaldian Mintxetan, Berasetan, Azkaraten eta San Lorentzon pasiaran ibiltzen garenok beldurtuta gaude. Izan ere, auto deportiboak dituzten gazteak, lasterketak eginez ibiltzen dira.** Leku hauetan pasiaran ibiltzen diren haur eta jende kopuru handia kontuan hartuz, **edozein egunetan ezbeharren bat gertatuko da.** Istripuan zauritu direnei ahalik eta bizkorren senda daitezen opa diet, baina ziztu bizian ibiltzen diren auto gidari horiei zentzu gehiagoz jokatzeko erregutzen diet”.

◆ Emakume bat etorri zaigu Elizako arkupeen zinkinkeriaz kexatzera. **“Larunbatetan gazte askok edari alkoholdunak erosi eta arkupeak erabiltzen dituzte euren nahasketak egiteko.** Batzutan erosketako karrotxoarekin ere ikusi izan ditut. Txiza ere bertan egiten dute eta oso usain txarra egoten da. **Lurrera jausitako edarien eraginez, zapatak lurrari pegatzen zaizkigu meztara joaten garenoi”.**



◆ Gazte batek elgoibartarrak txalotu nahi ditu, herrian egindako ekitaldi kultural bati horren modu egokian erantzuteagatik. “Ostiralean Josu Mugicaren dantza ikuskizunean izan nintzen, eta ilusioa egin zidan Herriko Antzokia jendez gainezka ikusteak. Are gehiago herritar baten lanaz gozatzeko joan zirela jakinda”.

HIZKUNTZA IKASTAROK ATZERRIAN

- ★ GAZTEENTZAKO IKASTAROK
- ★ ENPRESA MUNDUKO PROFESIONALENTZAKO IKASTAROK
- ★ ETORKIZUNEN PROFESIONALENTZAKO IKASTAROK
- ★ HIZKUNTZA IRAKASLEENTZAKO IKASTAROK


EAS - VELE

San Martzial, 39 - 1C
20005 Donostia
Tel: 943 42 80 60
Faxa: 943 42 14 79



I. URTEURRENA

1998ko maiatzaren 29an, 81 urte zituela hil zen **ISABEL LAKA LIZARRIBAR**en oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Madalan larunbatean, hilak 29, arratsaldeko 19:30etan. Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko martxa Elgoibarren amaituko da larunbatean

Plataformako kideek ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu nahi diete herritarrei

Debabarreneko Euskal Presoak Euskal Herrira plataformek, biharko, maiatzak 29, Eibarren eta Mutrikun hasi eta Elgoibarren bukatuko den martxa antolatu dute. Martxaren helburua, bailarako biztanleei, Estatu Espainiarrean dauden Euskal preso politikoek jasaten duten eskubideen zapalketa azaltzea da.

Pluraltasun ideologiko eta politikoan oinarritutako plataformatik adierazi digutenez, "harriduraz, arduraz eta minez, bidegabekoa eta ilegala den egoera honen luzapena ikusten ari gara". Era berean gogor azpimarratu nahi izan dute, "egoera honek Zuzenbide Estatuarentzat suposatzen duen apurketa larria, Mayor Orejaren ministerio despotikoaren helburu politiko ilun eta gehiegikeria errepresiboaren menpe, legaltasuna eta jurisdikzio bideak jarrita daudela".

Horregatik, Debabarreneko biztanleei deialdia luzatu nahi diete Elgoibarrerako martxan eta ibiladiaren inguruan antolatu diren ekitaldietan parte hartzeko. Elgoibarren hau dela eta astean zehar zenbait ekintza anto-



Mixel Sarasketa preso ohiak hitzaldia eskaini zuen asteartean.

latu dituzte. Asteartean, hilak 25, 20 urtean kartzelan egon den Mixel Sarasketa preso ohiak, karteletako egoerari buruzko eta bere bizipenen inguruko hitzaldia eskaini zuen Kultur Etxean. Gaur, ostirala, Udal Plenoak, Lizarra-Garaziko sinatzaileen laguntzaz, Alkatetzak eta herri ho-

nen gehiengoak Mikel Alberdiren askatasuna eskatuko du, kondenaen 3/4 beteta baitauka. Mikel Alberdik, Elgoibarko preso politikoak 14 urte eta erdi daramatza kartzelan. Alberdik gain, Iñaki Jaio eta Inaxio Iriondok ere azaroan 15 urte beteko dituzte espetxeratu zituztenetik. Bestalde 25 urte erbestean eman ostean duela sei hilabete kartzeleratu zuten Peio Ansola elgoibartarra ere.

Larunbatean, hilak 29, Mutriku eta Eibartik, *Euskal presoak Euskal Herrira* lemarekin bi martxa abiatuko dira, eta Elgoibarren izango dute amaiera. Eguerdiko ordubatean Madalako parkean harrera egingo zaie martxan datozei. Ondoren, Plaza Handian ekitaldi berezia izango da. Bertan bertsolariak, dantzariak... ari tuko dira. Ekintzei amaiera emateko Herri bazkaria egingo dute 2:45ean Madalako Parkean, giroa alaitzeko trikitilariak ere izango dira.

Plataformako kideek ekitaldietan parte hartzeko gonbitea luzatzeaz gain, elkartasuna adierazteko leihoetan *Euskal presoak Euskal Herrira* lema daukaten izarak jartzea eskatzen dute.

**Herri-gain
Erretegia**

San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAXA

RAIKS
KAFETEGIA
943 74 42 65

Greba Orokorrak erantzun zabala izan zuen Elgoibarren

Denda eta taberna gehienak itxita egon ziren eguerdiko 12:00etatik aurrera

Joan den ostiralean, hilak 21, 35 orduko lanastearen alde egindako grebak, ez zuen erantzun bera izan alor guztietan, baina oro har asko izan ziren deialdiarekin bat egin zuten langileak. Zenbait enpresatan lanuztea erabatekoa izan bazen ere, beste batzutan normaltasun osoz egin zuten lan. Bestalde, komertzioan eta ostalaritzan greba ia erabatekoa izan zen, batez ere, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Irakaskuntzan ere nahiko erantzun zabala izan zuen deialdiak.

Enpresak

Greba egin zuten enpresa handien artean Aisiakin, Alcorta, Kondia eta Rodisa daude. Bestalde, deialdiarekin ez zuten bat egin Estarta Rectificadoras, Danobat, Goiti eta Lagun enpresak. Maiatzaren 21ean lantegi hauetan normaltasun osoz egin zuten lan.



Goizean manifestazioa izan zen 5 orduko lanastea eskatzeko.

Administrazioa

Elgoibarko Udalak zerbitzu minimoak jarri zituen hiritarren beharrei erantzuteko, langileek greba egiteko erabakia hartu baitzuten. Kiroldegia irekitzeko asmoa zegoen arren, goizean sarriak apurtuta aurkitu zituzten bertako langileek, eta ezin izan zuten egun horretan zabaldu.

Irakaskuntza

Irakaskuntza ertainean, grebak ia erabateko jarraipena izan zuen. Hala ere, IMHn, eskolara agertu zen ikasle bakarrari eman behar izan zioten klaseak eman behar izan zizkioten. Lehen Hezkuntzan Pilar ikastetxean eta Herri Eskolan normaltasun osoz egin zuten lan, Ikastolak, berriz, bat egin zuen grebarekin.

Komertzioa eta ostalaritza

Denda eta taberna gehienek, greba deialdiari erantzunez, itxi egin zituzten atea. Batez ere, eguerdiko 12:00etatik aurrera, horrela erabaki baitzuten Txankakua Merkatarien Elkarteko kideek aurrez izandako bilera batean.

Aipatzekoa da, goizeko 9:30ean ELA eta LAB sindikatuek, EH alderdiak eta Gazte Asanbladak deituta manifestazioa izan zela Elgoibarko kaleetan, 35 orduko lanastea eskatzeko.



Evaristo Izetaren ilobek jaso zuten oroigarria musikariaren omenaldian

Evaristo Izeta musikari elgoibartarra omendu zuen Elgoibarko Udal Bandak joan den igandean, hilak 23, Herriko Antzokian. Kontzertuan Evaristo Izetaren musika lanak eskaini zituzten. Musikaria urte askoan Tenerifen bizi izan zen eta 1957an hil zen bertan. Bere jaiotzeko urteurrenean Elgoibarko Bandak herriaren izenean Izeta zena omendu nahi izan du. Igandeko ekitaldian bere ilobak izan ziren oroigarriak jasotzen. Evaristo Izetaren emazteak, ezin etorria azalduz eta Udal Bandaren detailea eskertuz, telegrama bat bidali zuen. Tenerifen ezezik bere jaioterrian ere gogoratua eta maitatua dela adierazi nahi izan zuten omenaldi honen bidez.

102 lagun bildu ziren jaiotzeko urrezko ezteien ospakizunean

Aurten 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrak, 1949an jaiotakoak, joan den larunbatean, hilak 22, elkartu ziren jaiotzeko urteurrena ospatzeko. Duela bederatzita urte hasi zen 50 urte betetzen dituzten herritarrak biltzeko ohitura eta hutsik egin gabe urtero errepikatzen da ospakizuna. Elizkizuna, luntxa, bazkaria eta dantzaldia izaten dituzte eta egunaren oroigarri gisa elkartutako guztiek ateratzen dute argazkia. Aurten 102 elgoibartar elkartu omen ziren eta datorren urtean ere 50 urte beteko dituztenak ziur batuko direla beraien jaiotzeko urrezko ezteiak ospatzeko.



Azkue



EAJ-PNVk Gillermo Garate, egungo alkatea, aurkeztu du berriz ere alkatetzarako

Gillermo Garate, egungo Elgoibarko alkatea da EAJ-PNV alderdiak ekainaren 13ko hauteskondeetarako aurkeztu duen zerrenda burua. Prentsaurrean azaldu zuteneguz, eguneroko lanaren oinarriak, gestioaren eraginkortasuna eta geroa prestatzea dira. "Elgoibartarrei adierazi nahi diegu prest gaudela milurteko berriarako. Horretarako, EAJ-PNVk talde sendoa aurkeztu du, gestioan aditua dena". Argazkian, Gillermo Garate alkategaiaz gain, zerrendako beste hautagairik gehienak agertzen dira.



Jaime Ovidio Campello da PSE-EE alderdiko alkategaia

Jaime Ovidio Campello, (ezkerretik hasita laugarrena) aurkeztu du PSE-EE alderdiak hauteskondeetako zerrenda buru gisa. Astelehenean, hilak 24, kandidaturaren aurkezpenean adierazi zuenez, *zurekin* da aukeratu duten lema. "Datorren legealdikoa, denok parte hartu ahal izango dugun Udala izatea nahi dugu". Programako ideia nagusia enplegua da eta Udaletik lan aukerak gehitu daitezzen saiatuko dira. Aurkezpenean, Gipuzkoako Ekonomia Diputatua izan zen eta elkartasuna adierazi zien Elgoibarko hautagaiei.



Ikastolako ikasleak Madrilera bisitan

Ikastolako DBH 2ko 45 ikaslek Madrilera eta inguruetara kultur bidaia egin zuten maiatzaren 14, 15 eta 16 egunetan. Madrilen Prado eta Reina Sofia museoak, Retiroko parkea, Atotxako geltokia... bisitatu zituzten. Handik, Toledora abiatu ziren eta Juderia auzoa, Sinagoga, museo sefardia, katedrala eta Grecoren Conde Orgazen hileta margolana ikusi zituzten. Segovian Akueduktoa eta Alkazarra bisitatzeko parada izan zuten. Bidaia polita, entretenigarria eta hezitzailea izan da eta hurrengoan horrelako beste bat egiteko prest daude.



Giro ona Pilarreko Guraso Egunean

Joan den larunbatean Pilar ikastetxean Guraso Eguna ospatu zuten. Bertara hurbildu zirenek gurasoen eta ikasleen arteko futbol partiduak ikusi ahal izan zituzten. Bestalde, eskulanak egiteko eta gaztelu puzgarrian zein koltxonetetan saltoka aritzeko aukera ere izan zen. Ikastetxean egindako lehiaketetako sari banaketa, larunbatean bertan egin zen eta Pilarrera gerturaturako jende ugari han gelditu zen bazkaltzera. Jaia arratsaldera arte luzatu zen eta giro alaiari amaitu zuten gurasoek eta haurrek eguna.



Jesus Mª Gabilondo Urain
 ERREFORMAK · ETXEBARRUKO LANAK
 LAN TOPOGRAFIKOAK


Delineatzailea - Topografoa · 1397. kolegiatua
 Ubitarte, 4- 5. esk. · Tel: 943 74 45 99 · Faxa: 943 74 18 91



JOSE pinturak
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk · Tel: 943 74 12 55 · Mobila: 629 44 23 14



Osasunean adituak

GAIA:

GARATXOAK (berrugak)

Garatxoak, papiloma izeneko birusak azalaren kanpoko aldea erasotzen duenean agertzen dira. Birus honek zelula batzuen hazkunde bizkortzen du. Azken finean, azalean sortzen diren tumore onbera edo "benignoak" dira, baina ez daukate kantzerrarekin zerikusirik. Garatxoak batzutan kutsagarriak izan daitezke, pertsonen artean, edo garatxoak dituenaren gorputz atal batetik bestera kutsatu daitezke.

Dutxa publikoen erabilera, azaleko zauriek edo kolpeek edo medikamentu batzuek sortarazten dituzten erreakzioak dira garatxoak izateko modurik arriskutsuenak. Honakoak dira prebentziorako neurri garrantzitsuenak:

- Gorputz osoan zabal ez daitezen, ez dira apurtu edo zanpatu behar. Babestea komeni da, batez ere, eskuetan dauden garatxoak.

- Kutsadura arriskua gutxitzeko garbitasun eta higie-neurriak gehitu behar dira.

- Ez dira beste pertsonen garatxoak ukitu behar, ezta besteen zapatillak jantzi ere.

- Dutxa publikoetan, kiroldegietan edo gimnasioetan gomazko zapatilak erabili.

Garatxo batean zehar-ebaki bat eginez gero puntu beltz batzuek agertzen dira. Puntu hauek odolbildu txikiak dira eta beraien bidez elikatzen dira garatxoak. Garatxoak oso txikiak izaten dira hasieran, 1 eta 3 milimetro artean neurtzen dute. Baina elikatuz doazen heinean hazi egiten dira. Azalaren kolore berekoak izaten dira edo zertxobait ilunagoak. Gainera, ez dute minik ematen ezta azkurerik ere. Garatxoek ez dute tratamendu beharrik izaten, baina oso gogaikarriak izanez gero, medikua-ren gomendioak jarraituz, kentzeko teknika asko daude.

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

..... P. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
 Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
 Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
 Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
 Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**
 Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
 Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
 Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu **943 74 37 04ra**

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu **BARRE**Neko **943 74 41 12ra**

**EUSKAL HERRIKO MENDIZALE
FEDERAKUNDEAK 75 URTE BETE DITU**

Ba al daukazu mendira joateko ohiturarik?



IDOIA URAIN
35 urte, etxekoandrea

Ez naiz mendira juaten, ez jatalako asko gustatzen. Batzutan umiekin bai, baina oso gutxitan. Egualdi onakin plaiara jutia nahixao izaten dot.



ARTURO ANDRADE
42 urte, eskultorea

Oso gutxitan joaten naiz. Lehen igandetean mendi aldera joaten nintzen, baina orain bi alaba dauzkat eta ez dut astirik. Handitzen direnean agian beraiekin joango naiz.



JUANI ARAKISTAIN
34 urte, etxekoandrea

Bai, baina oso gutxi. Mendi-zaliak bezela gailurrak itxera ez naiz juten. Noizian behin, uda partian, egualdi onak aprobeitxau eta buelta bat ematera juten naiz.



ROKE ARREGI
77 urte, jubilatua

Oin zahartuta nao, baina sasoi batian juten ginan. Kuardilan eta andriakin egun pasak itxen genduzen. Gogorren batzuek ere bai, "Vuelta Ondarroa"-eta holakuak.



SILVIA PALOMINO
22 urte, ikaslea

Ez, batere ez. Beste gauza batzuk gehixo gustatzen jataz. Neguan eskiatzera juten naiz, baina udan nahixao dot plaiara jutia mendira jun biharrian.



VICENTE TERCERO
38 urte, masajista

Lehen astean behin Karakatera joaten nintzen, orain gutxiago. Hala ere, Xoxote aldera egiten dut mendi bueltaren bat edo beste. Denontzat komenigarria dela uste dut.

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan.

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behe. ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🏍️ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

Gaundi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.

Zatoz informazio eske!

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA

Tel: 943 74 10 11

Dekorazio



gehigarria

Etxe polit, atsegin eta eroso bat izatea da jende askoren ametsa. Familia giroan, aisialdian edo lagunekin gozatzeko lekua izan daiteke, eta baita kasu batzutan lanerako txokoa ere. Dekorazio gehigarri honetan zenbait aholku edo gomendio eman nahi ditugu etxea ahalik eta era egokienean antolatzeko eta jende askoren ametsa den etxe ederra errealitate bihurtzeko.



Luis F. Beristain



- Sukalde eta bainurako altzariak
- Elektragailuak
- Armairu enpotratuak
- Zoluak
- Ateak
- Gremioen koordinazioa

Liburuen txokoa

Ez dago altzaririk egongela liburuz betetako liburutegi batek beste apaintzen duenik.

Liburutegiaren alorrean aukera oso zabala da eta guk zenbait argibide emango dizkizugu, ondoren nahi duzuna aukera dezazun.

Sistema aukeratzeko orduan kontuan izan beharko ditugu liburu kopurua, espazioa eta norberaren gustuak. Izan ere, mota askotako liburutegiak daude.

▲ Liburutegi altzariak

Estilo klasikoak gertu egon ohi dira eta pisu dekoratibo izugarria daukate. Gainera, nahi den tokian ipini daitezke. Baina, egongela txikietan tamainarekin kontuz ibili behar da.

▲ Neurria egindakoak

Espazioa era egokian aprobetxatzen dute. Baina, badute eragozpen bat, ezin dira lekuz aldatu.

▲ Modularrak

Modulo ezberdinez osatuta daudenez, nahi beste zati gehi dakizkioke liburutegiari. Dekorazioa aldatuz gero ere, beste leku batera mugitzeko erraztasuna emango digute. Gaur egun, gereziendoaren egurra da egongeletarako liburutegiak egiteko gehien erabiltzen den materiala. Erraz landu daiteke eta amaieran hartu ohi duen kolore gorrixka modakoa da. Ikasgeletako eta gazteen logeletako liburutegiak, pago egurrezkoak edo kolore argia duten egurrez eginak dira



batez ere. Atzeko aldean edo alboetan kolore indartsuagoak izaten dituzte, berde eta urdin ilunak esaterako. Dekorazio klasikoak duten etxeetan liburutegiak ere horrelakoak izaten dira. Modernoagoak, aldiz, liburutegi modularren aldeko apustua egiten dute. Orain, norberari dagokio bere etxeko estilora egokitutako liburutegia aukeratzea.

 **keramikak**
Anchústegui

ERAKUSKETA eta BULEGOA:
Antonio Arrillaga, 6 -8 behea
83 P.K. 20870 ELGOIBAR
Tel. 943 74 33 44 / 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

BILTEGIA:
Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 38 / 74 23 71



SORALUZE

Aroztegia

ALUMINIOA
PVCa
POULIURETANOA



ERAKUSKETA: Santa Ana, 3 · Tel. 943 74 36 34 · ELGOIBAR · Goiko kale, 16 · Tel: 943 81 02 74 AZPETIA
FABRIKA: Olasope, 66 · Tel/Faxa: 943 74 21 03 · ELGOIBAR

Movellán
Sukalde eta bainurako altzariak

*Neurrira egindako proiektuak
estilo guztietan*

KLASIKOAK · MODERNOAK · ERRUSTIKOAK



■ Kalitatezko
altzariak
eskura

■ Aurrekontuak
konpromezurik
gabe

P. M. Urruzuno, 10 Tel. 943 74 37 66 20870 ELGOIBAR

SUKALDEAK. Etxeko gatza eta piperra

Etxe baten zapore gehien duen txokoa da sukaldea, bizitzari gatza eta piperra jartzen zaion lekua. Hona hemen, sukalde egoki baterako errezetarik onena.

▲ Armairuak aukeratzeko orduan ez hartu 60 zm. baino gehiagoko sakonera dutenak. Eta egunero erabiliko ditugun tresna eta osagaiak begien altueran jarri.

▲ Armairuetan eta paretetan kopak eta kizarak zintzilikatzeko barrak eta gantxoak jarri. Platerak eskura izateko edukiontziak ipini, eta baita trapuak esekitzeko iltzeak ere.

▲ Janariak prestatzeko lekua suaren ondoan egon behar da lana eta garbiketa erraz eta eroso egiteko.

▲ Sukaldea txoko eroso izan



behar da: argi bereziak, kuadroak eta elementu dekoratiboak jartzeko aukera ematen duena.

▲ Materiale tekniko hotzak, altzairua, harria eta beira, beroagoekin konbinatu egurrarekin, telarekin edo kortxoarekin esaterako.

▲ Arroparen garbiketarekin zerikusia duten elementuak batera jarri. Besteak beste, garbigailua, lehorgailua, garbiketako produktuak gordetzeko armairua eta plantxa.

▲ Kaxoiek, armairuek baino espazio txikiagoa betetzen dute. Tolesten diren aukiek ere leku gutxiago behar dute.

▲ Altzarien zokaloak botilak, palanganak, eta gutxitan erabiltzen diren tresnak gordetzeko egokiak izan daitezke.

LAU

ALFONBRAK
DEKORAZIOA

► Proiektuak
► Erreformak
► Zoruak

► Koadroak
► Gortinak



San Frantzisko, 39-42 · Tel. 943 74 18 89/74 06 73

ETXEAN BERTAN HARTZEN DITUGU NEURRIAK



*Alfonbretan aukera zabala:
orientalak, turkiarrak,
nepalekoak...*

URRATEGI



SUKALDEAK

Utzi gare esku zure sukaldearen proiektua inolako konpromezurik gabe.



5
urteko



G
A
R
A
N
T
I
A

IBAI ONDO, 10 behea · 20720 AZKOITIA · Tel. 943 85 17 35 · Faxa: 943 85 13 14



Formula



ZUK ERABAKI NOLA
ORDAINDU

Eskura edo
kreditu txartelarekin
(90 egun ditazu nola ordainda erabakitzeko)



TELAK. Kalitatea aukeran

Telak aukeratzean okarren bat eginez gero, disgustoak eragin ditzake epe luzera.

Horregatik, ehunaren mota, testura eta kolore egokiak hautatzen jakin behar da. Era berean, tela bakoitzak daukan kalitatea ezagutzen eta baita tapizatzeke eta kortinak egiteko egokienak diren ehunak aukeratzen ere.

Ehunen aukeraketak eragin nabarmena dauka etxebizitzaren dekorazio estiloan. Etxeari goxotasuna emateaz gain, intimitatez eta erosotasunez janzten dute. Hori dela-eta, hiru gauza izan behar dira kontuan telak aukeratzeko orduan: zein motako ehuna nahi dugun, zein kolore izango den egokiena eta zenbat diru daukagun. Tela erosten dugunean ez dugu ehuna



bakarrik ordaintzen. Konposizioak eta, batez ere, diseinuak eragin handia du amaieran ordaindu beharreko prezioan.

Kalitatearen arabera, telen salneurrietan gorabehera nabarmenak aurki ditzakegu. Baina, ezberdintasun guztien gainetik, ordaintzen dena diseinua da.

Telak egiteko erabiltzen den materialaren arabera, hiru mota

daude: naturalak, artifizialak eta sintetikoak. Azken hauek merkaturatu zirenetik, tela gogorrek lor daitezke, era berean ekonomikoak direnak. Baina dekoraziorako naturalen aldeko apustua egiten da.

Aukeratzen dugun tela etxeko beste elementuekin bat datorren edo ez jakiteko, komenigarria da dendako adituei ohial zati handiak eskatzea, dekoratu behar dugun espazioan nola ematen duen ikusteko. Beti ere kontuan izan behar da argitasunak kolorea aldatzen duela.

Azken finean norberak aukeratu behar du dekoratu behar duen lekuaren, bere gustuen eta daukan diruaren arabera zein ehun den egokiena. Gure gomendioa kalitatea kontuan izatea da.

Juaristi aroztegia



Santa Ana, 16 Elgoibar ■ Tel: 943 74 29 94



■ LEIHOAK

Egurra - aluminioa

Aluminioa

PVCa

■ ARMAIRU

ENPOTRATUAK

■ ATEAK

■ TARIMAK

LIKIDAZIOA

negozioa ixten
dela-eta.



FERPI MODAK

San Bartolome, 28 · Tel. 943 74 43 45

Ariondo

SANTA ANA 4 eta 6 · TEL 943 74 12 34



aukeratu zure estiloa

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
DEKORAZIOA**

Mari Jose Zubiaurrek 50 urte ditu, eta bere bizitza gaztetatik egon da musikari lotuta. Gaur egun Inazio Bereziartua Musikeskolako arduraduna da. Trinitate jaiak bertan ditugu eta, beraz, baita haurren tanborrada ere. 100 haur baino gehiago arituko dira tanborradan, eta prestaketa eta ensaiok suposatzen duten lanari buruz hitz egin dugu Mari Joserekin.

“Umiei trajia jaztiak ilusio haundixa itxen diue”

– **Noiz hartu zuen Musikeskolak haurren tanborradaren ardura?** Aurten-gua 4. urtia izango da. Duela 10 urte inguru, Udalak hartu zaban ohixtura zahar hau berpizteko arduria. Udalak tanborradia antolatzeke eskatu zigun eta konpromisua hartu gendun.

– **Entsaio eta prestaketa asko behar al da?** Bai, jantzixak alkilau itxen dia, ‘karrozia’ apaindu... Apirilian, azkenengo astian, hasi ginan ensaiuekin eta guztira 5 ensaio ingo ditzugu. Haurrek segiduan ikasten dabez ritmuak eta ez da arazorik egoten.

– **Zenbat haurrek parte hartuko dute?** 8 urtetik 12 urtera bitarteko 105 haurrek. Gaztien Bandako musikoak ere izango dia, guztira 140 haur inguru.

– **Denak Musikeskolako ikasleak al dira?** Printzi-

pioz bai. Baina, gure ikasliak ez izan arren, tanborradan parte hartzia nahi daben haurrak ere onartu izan ditzugu.

– **Pazientzia handia behar al da?** Piska bat bai. Nahiz eta ritmuak ezautu, ez diote ilaran jutiari kasu gehixegi itxen, eta tanborra ere gurasueri begira jotzen dabe. Holako gauzak erakusteko bihar da pazientzia gehixen. Gainera, ume asko makilak zela apurtuko ditzuen pentsatzen etortzen dia ensaiuetara. Gure lana errespetu piska bat jartzia da.

– **Zer da ilusio gehien egiten diena?** Trajia jaztiak ilusio haundixa itxen diue. Inork ez dau sukaldari moduan jazterik nahi, frantzes traje bistosua jazteko desiatzen eoten dia. Abanderaua izateko ere, danak eoten dia prest. Horregaitxik, diskusiorik ez sortzeko azkenengo momentuan era-

bakitzen dou zein jungo dan zaldi gainian.

– **Karroza gai konkretu baten inguruan apaintzen duzue, ezta?** Bai. Duela 2 urte “Edunezuri eta zazpi ipotxak” ipuinean oinarritxu ginan. Printzia oso dotore zauan eta arrakasta haundixa euki zaban. Iaz, Haritz Dantza Taldekuen 25. urteurrena omendu gendun, eta aurtengo karrozia, haurrekin pentsauta in dou. Baina, nahixao dot ez aurreratzia, egokixaua iruditzen jata egunian bertan ikustia.

– **Gaztetan parte hartzen al zenuen tanborradetan?** Ez naiz gogoratzen, baina zaletasuna gaztetatik dakat. Monjekin ikasi naban eta latineko irakaslia, Jose Antonio Ezeiza apaiza Irungua zan. Kurso bukerao eskursian Irungo San Martzialetara eruan gintxun, eta berak tanborradia zela bizi zaban ikusitxa sortu jatan zaletasuna.

– **Anekdotarik?** Urtero orri bat bialtzen jakue gurasuei gerrikua narruzkua eta euren neurrikua izan bihar dala esanez, tanborrak pixua dakalako. Askok ez dabe kasorik eitxen, eta gomazko gerrikuekin etortzen dia. Gero hor ibiltzen dia prakeri ezin eutsitxa eta tanborra belaunak baino berao. Gorputzak ere ez ditxue berdinak eta jostun bat eukitzen dou azken orduko konponketak itxeko. Trajiak etxera eruan arren askok ez ditzuelako probau ere itxen eta sorpresak azken orduan izaten dia.

– **Nolakoa izaten da jendearen harrera?** Oso ona izaten da. Ekintza finko bat bihurtu da eta jendia mentalizauta dao.


MARI JOSE ZUBIAURRE

BESTEAK ESANA

“Emakume gartsua eta egunerokoan eta lanean sutsua. Lantokian bera da ekintza berri guztien eragile motorea.” JOSE LUISA HUERGO, laguna.



ALDATZE



**Batxilergoa
(16-18 urte)**

HASI eta HEZI, GUREKIN

*FAKULTATE,
ESKOLA UNIBERTSITARIO eta
2. mailako LANBIDE-HEZIKETA ZIKLO
guztietara heltzeko
PRESTAKUNTZA IBILBIDE APROPOSAK*

- * Jantoki zerbitzua
- * Neska-mutilei eskainia
- * Ekintza osagarriekin borobildua

Aldatze kalea, 5 · Eibar · Tel. 943 70 11 50 · Faxe: 943 70 13 04



La Salle

**“Azitaingo Ama” Ikastetxea
20600 EIBAR**

BATXILERGOAK

- ZIENTIFIKO - TEKNIKOAK
- OSASUN ZIENTZIAK
- GIZARTE ZIENTZIAK



Deitu eta jaso informazioa
telefono hauetan:
Ikastetxea: 943 12 16 98
A.P.E. : 943 20 25 05

*Eskaeren aurkezpena ekainaren 1etik 9ra.
Matrikula egiteko epea uztailaren 1etik 9ra.*

La Salle · Azitaingo Ama · Gorosta Balle, 34 · 203 Postakutxa · 20600 EIBAR
Tel: 943 12 16 98 · Faxe: 943 12 16 98 · E-posta: lsallensae@planalfa.es



"Mundu guztixa ohartu da euskal mendizalek eindako lanakin"



Pako Iriondo

- **Adina: 72 urte**
- **Gogoko kirol edo zaletasunak**
Orokorrian kirol guztixak; futbola, esku pilota, ziklismua eta atletismua.
- **Mendira juteko urtaro bat?**
Udaberri oso politxa da.
- **Mendira joateko aholku bat?**
Mendira jutia gauza bat da, baina itzultzia da garrantzitsuena.

-Euskal Mendizale Federakundearen 75. urteurrena ospatu duzue Elgetan, zer moduz? Oso ondo. 1924ko maiatzaren 18xan sortu zan Euskal Mendizale Federakundia Elgetan, eta 75. urteurrena ospatzeko 5.000 pertsona baino gehixo bildu ginan jai giro ederrian. Gainera, Arabatik, Bizkaitxik, Gipuzkuatik, Iparraldetik eta Nafarruatiak abenduan 20xan abixau ziazan 5 makilek, federaziua sortu zanetik pasau diazen 75 urtiak omentzeko, Euskal Herriko beste hainbat gailur igo zitxuen. Oso hunkigarria izan zan bost lurraldiak sinbolizatzen zitxuen makilak elkarrekin Elgetan sartzen ikustia.

-Zenbat mendizale daude federaturik? Ixa 19.000 federau daoz Euskal Mendizale Federakundian eta 175 mendizale talde. Estaduan ere federau gehixen ditxugu, gure atzetik federazio Katalanak dakaz gehixen, 12.000 inguru, hortik atera kontuak.

-Bi aldiz izan zara Federazioko lehendakaria, ezta? Bai. Lehenengo aldiz 1971. urtian hartu naban kargua eta 1976xan laga naban. Nere ondoren federaziua zuzendu zabenek ez zitxuen gauzak bihar bezela in eta bueltatzeko eskau zien. Hola, 1986. urtian ni izan nitzan aurkeztutako kandidato bakarra eta berriz ere kargua hartu naban. Lehenengo etapia eta bigarrena gehitxuz, 18 urte in ditxut Federazioko lehendakari karguan. Uste dot Elgoibarko herrixantzat ere abe-

rasgarria izan dala lehendakarixa bertakua izatia, pertsonalidate haundixak etorri diaz-eta. Herritxarrek holako gauzak estimatzen ditxuela uste dot.

-Zenbat aldatu dira gauzak duela 25 urteko lehen etapatik ona? Mendi-zaletasun aspektu danetan eon dia aldaketak: elikaduria, materixala eta ekipuak, teknika eta preparaziua, seguridadia... aldaketa danon onerako izan dia. Oin dala 25 urte Everestera in zan lehenengo espediziua eta Juanito Oiarzabalek *Anapurnara* in dabana ezin leikez konparau.

-Zer Iruditzen zaizu Juanito Oiarzabalek egin duen marka? Izugarria izan da, 14 zortzi milakuak in ditxuan munduko 6 pertsona izatiak dana esaten dau. Duela 10 urte ingurutik, Juanitok, Iñurrategi anaixek, Josune Bereziartuak, Patxi Usobiagak eta beste hainbat mendizalek egindako lanak, Euskal mendizaliek daken maila argi laga dabe, eta mundu guztixa ohartu da honekin.

-Zein dira lehendakari moduan egin dituzun lorpen nagusiak? Batetik, oso arro nao federauen kopurua hasten lagundu dotelako. Ni sartu nitzanian 9.000 federau zaozen eta iaz 18.700. *Pirenaica* aldizkarixa berreskuratzen ere asko saiatu nitzan. 3 hilabetekarixa da eta 89. urtetik koloretan argitaratzen dou. Antonio Ortega da zuzendarixa eta kalidate haundiko aldizkarixa itxen dabe.

Jende asko eta umore ona *Jo Ta Sua* Realeko peñaren aurkezpenean

Makina bat realzale inguratu zen astelehenean, hilak 24, *Jo Ta Sua* Realeko peñaren aurkezpen ekitaldira. Herriko antzokia gazte eta helduz bete zen Jauregi, Sarriegi, Mutiu eta Gomez Realeko jokalaririk ikusi eta entzuteko. *Sansen* jokatzan duen Josu Ibarra eta Realeko jubenilen taldearekin, espainiako txapelketa irabazi berri duen Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarrek ere aurkezpenean parte hartu zuten. Guztiek mahai baten in-



guruan hitz egin zuten eta Jon Elorza ETBko kazetaria izan zen aurkezpeneko gidaria. Aipagarria da Mutiu eta Gomez berandu iritsi arren, umore oso onez agertu zirela. Gauean, *Jo Ta Sua* peñakoek eta jokalariek, egunari amaiera bikaina eman zioten afari batekin.

● **Haundi 3. mailara jaitsi da**

Haundik 3. mailan jokatu du datorren urtean. Domekan jokatu zuen ligako azken partidua *Cultural Leonesaren* aurka eta 0-1 irabazi zuten, baina duela aste batzuetatik maila galdua zuten elgoibartarrek. Etxetik kanpo jokatuako partiduetan huts egin dute aurtan 6 puntu besterik ez baitituzte eskuratu. Espero dugu datorren urtean zorte hobea izatea eta lehenbailehen 2B mailara igotzea.

● **Bailarako I. Tenis txapelketa ekainaren 5ean hasiko da**

Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek, Bailarako I. Udaberriko Tenis txapelketa antolatu dute. Partidu guztiak Unben eta IMHn jokatu dira, larunbateetan eta igandeetan, ekainaren 5etik uzatailaren 25era arte. Txapelketan bi maila izango dira, 1985 urtea baino lehenago jaiotakoak (Nagusiak) eta 1985 urtetik aurrera jaiotakoak (Gaztetxoak).

Pagoaga-Elgoibar eskubaloi taldeak Espainiako Txapelketako fase finala jokatuko du

Azken fasean Espainiako 8 talde onenak arituko dira

Pagoaga-Elgoibar kadete mailako nesken eskubaloi taldeak, Espainiako txapelketako azken faserako sailkatzea lortu zuen, pasa den asteburuan Getafen (Madrilen). Elgoibartarrek beste bi talderen aurka neurtu zituzten indarrak. Lehen partidua zapatuan, hilak 22, jokatu zuten *Ramon Pelayo*, Santandergo taldearen aurka eta 19 eta 5 irabazi zuten. Igandean, berriz, *Balonmano Gijon* taldearen aurka 12 eta 10 irabazi zuten. Garaipen haei esker, ekainaren 19tik 26ra bitartean Valladolid edo Burgosen jokatuko den Espainiako Txapelketako azken fasean izan-



Pagoaga-Elgoibar eskubaloi taldeko neskek bere entrenatzailearekin, Igor Lizarralderekin.

go dira. Azken fasera sektoreetako 8 talde txapeldunak joango dira. Beraz, Pagoaga-koek ez dute lan erraza izango, baina ilusiorik ez zaie falta.

Ikastolako eskubaloi taldea Gipuzkoako ekolartereko Txapeldun

Ikastolako infantil mailako mutilek Gipuzkoako Eskolarteko eskubaloi txapelketa irabazi zuten pasa den larunbatean, hilak 22, Andoaingo kiroldegian. *Toki Alai* Irungo taldearen aurka jokatu zuten finala eta emozio handiko lehia orekatuaren ostean, 23 eta 22 irabazi zuten. Datorren larunbatean Euskadiko Eskolarteko txapelketa jokatuko dute Gasteizen. Zortetik onena opa diegu elgoibartarrei.



Igeriketa taldekoak bigarren Gipuzkoako eskolarteko waterpolo txapelketan



Elgoibarko Igeriketa Taldeko kideak Gipuzkoako eskolarteko waterpolo txapelketan txapeldunorde geratu dira. Hernaniko igerilekuan jokatu zen txapelketa pasa den larunbatean, hilak 22, eta hernaniarrak izan ziren irabazleak. Elgoibartarrentzat waterpolo txapelketa batean parte hartzen zuten lehenengo aldia zen, eta argazkian ikus daitekeen moduan, oso gustura daude lortutako emaitzarekin.

EMAITZAK

Futbola

Cultural Leonesa **0** - Haundi **1**
Elgoibar **15** - La Salle **0** (1. kad.)
Antoniano **1** - Elgoibar **1** (1. jub.)
Elgoibar **4** - Zarautz **0** (Neskak)
Pedrusko **6** - Alleru **2** (2. erreg.)

Areto Futbola

Arditurri "A" **5** - Zur Ta Lur **3** (1. maila)
Zur Ta Lur **7** - Ondarre **1** (Auton.)

Eskubaloia

FASE PROBINTZIALA

Toki Alai (Irun) **22** - Ikastola **23** (Inf. mut.)
Zarautz **18** - Ikastola **11** (Inf. nesk.)
Andoain **10** - Ikastola **15** (Ale. mut.)
Orereta **1** - Ikastola **38** (Ale. nesk.)

Esku Pilota

LAGUNAK PILOTA TXAPELKETA

D Mendibil **18** - U. Bilbao **12** (Ben. aur)
A. Gonzalez **6** - A. Gumez **18** (Aleb.)
M. Portu **14** - I. Ugalde **18** (Aleb.)
J. Muñoz **18** - U. Larrañaga **17** (Aleb.)
H. Arribillaga **18** - J. Agirrebeña **2** (Benj.aur.)
J. Muñoz **18** - M. Elustondo **8** (Aleb.)

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Elgoibar-Amezeta

Bernedo/Ubera **9** - Agirre/Murua **18** (Kad.)
Arrillaga/Perea **22** - Lertxundi/Altuna **15** (Jub.)
Ansola/Balzola **10** - Saralegi/Garmendia **22** (Nag.)

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 98/99
JOKALARIA PUNTUAK

| | |
|--------------------------|----|
| 1- Aitor Trebiño | 32 |
| 2- Ibon Muguruza | 32 |
| 3- Madina | 30 |
| 4- Gurrutxaga | 30 |
| 5- Díaz | 29 |
| 6- Eneko | 28 |
| 7- G. Lazarobaster | 27 |
| 8- Txasio | 26 |
| 9- Iker Leonardo | 22 |
| 10- Caro | 20 |
| 11- Beitia | 18 |
| 12- Igor | 16 |
| 13- Elkoro | 15 |
| 14- Loren | 13 |
| 15- G. Leonardo | 10 |
| 16- Portu | 1 |
| 17- Joseba Igartua | 1 |

AGENDA


Esku Pilota, Kiroldegian

Ostirala, 28
22:10 Zur Ta Lur - Oive (1. maila)

Aldi bi
Olaso, 23 · 943 74 20 37


Jabier Muguruza eta Joxean Artze gaur, hilak 28, Kultur Etxeko sotoan

Gaur, hilak 28, Kultur Errotaren 8. emanaldian Jabier Muguruza kantaria eta Joxean Artze olerkaria izango dira Kultur Etxeko sotoan. Elgoibarko Izarrak eta Euskara Elkartearen Topaguneak antolatutako eta Udalaren laguntzaz aurrera ateratako saioa da.



JABIER MUGURUZA

Jabier Muguruza, *Zarama*, *Delirium Tremens* edo *Kortatu* bezalako taldeekin aritu da soinu-jole gisa eta bakarkako 3 disko ere kaleratu ditu, *Aise* izenekoa azkena. Elgoibarren bere kanturik ezagunenak eskainiko dizkigu.



JOXEAN ARTZE

Joxean Artze poeta, berriz, *Ez Dok Amairu*-ko sortzailertariko bat da. *Hitz and fits* da bere azken olerki lana eta Elgoibarren poema berriak errezitatuko ditu. Poesia hauetan mezua eta edukia dira nabarmendu beharrekoak. Kultur Errotaren saioa gaueko 22:30ean hasiko da eta sarrera 500 pta.koa izango da.

Tanbor soinuak eta musika Trinitate jaietan

Udal Bandak dantzarako doinuak eskainiko ditu larunbat gauean

Astebukaera honetan jai giroan murgilduko gara elgoibartarrok, Trinitate jaiak ospatuko baititugu. Dagoeneko dena prest dago, beraz, bakoitzak gustuko dituen ekitaldiak aukeratu eta larunbatean eta igandean ondo pasatzeko parada izango da.

Larunbat goizean, Albitxuriko zelaietan *La Unión* Elkarteak antolatutako ehiza txakurren lehiaketa izango da. Ondoren, gaztetxoek, Plaza Txikiko barraketan doan ibili ahal izango dira, goizeko 10:30etik 13:30era bitartean. Arratsaldeko 16:00etan hasita Leku Ederren xake txapelketa jokatuko da *Zubi Ondo* elkarteak antolatuta. Bestalde, 17:00etan Inazio Bereziartua Musikeskolako dantza ikasleek jaialdia eskainiko dute Foruen plazan eta bertan Haritz Dantzari Taldeak eta Udal Txistulari Bandak hartuko dute parte. Gauerako, berriz, bi musika saio daude iragarrita. Batetik, Plaza Handian Elgoibarko Udal Musika Bandarekin Dantzaldia izango da. Bestetik, Madalako parkean gazteagoentzat *Norbaitz*, *Eraso* eta *Brutal Thin* taldeen kontzertua izango da, Elgoibarko tabernarietako antolatuta. Biak gaueko 23:00etan hasiko dira.

Maiatzaren 30ean, igandea, Trinitate eguna, goizeko 9:00etan Udal Txistulari Taldeak diana joko du. 10:30etik 14:30era Leku Ederren Artisau azoka izango da ikusgai, aurten laugarren aldiz egingo da gainera. 11:00etan Meza Nagusia izango da eta Parrokiako Abesbatza arituko da bertan kantari. Ordu berean, Kultur Etxean *Zubi Ondo* elkarteak antolatuta



Artisau lanak izango dira ikusgai igandean, hilak 30, Leku Ederreko parkean,

ko "Bapateko VI. Xake Txapelketa" jokatuko da eta adin guztietako jendeak hartu ahal izango du parte. Eguerdiko 12:00etan Udal Musika Fundazioak antolatuta haurren tanborrada izango da eta Musikeskolako Banda izango dute gaztetxoek lagun. Arratsaldeko 17:00etan erraldoi eta buruhandien kalejira izango da Elgoibarko dultzaineroekin. 18:00etan Nafarroa Plazan *Azkona pailazoak* izango dira gaztetxoek gozameneko eta jaiak borobiltzeko 19:30ean *Tirri Tarra Show* ikuskizuna eskainiko du izen bereko txarangak Foruen plazan.

Bada, beraz, nahikoa eskaintza aurtengo Trinitate jaietarako. Elgoibartarrok ongi pasatzeko gogoia baino ez dugu jarri beharko.

Ikastolako gazteak Jatetxean antzezlanak eskaini zuten atzo Eibarko unibertsitatean

Ikastolako DBHko 2. mailako ikasleek *Jatetxean* antzezlanak eskaini zuten ostegunean, hilak 27, Eibarko Unibertsitate laboraleko antzokian. Emanaldia Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Topaketan barruan kokatzen da. 46 gazte osatzen dute antzerki talde erraldoi hau. *Jatetxean* antzezlanak taularatzen duten 3. aldian izan da, iazko abenduan adibidez, Artazo baserriaren aldeko jaialdian parte hartu baitzuten. Esan digutenez, 3 emanaldietan makaleko arrakasta lortu dute, jendea oso gustura geratu baita ikusitakoarekin.



Jatetxean antzezlanean 46 gaztetxok parte hartzen dute.



ADINA: 30 urte
JAIO TERRIA: Elgoibar
IKASKETAK: Injinerutza teknikoa
LANBIDEA: Injineru teknikoa
EGOERA ZIBILA: Ezkondua
ZALETASUN BAT: Mendia, buzeoa, irakurketa.
LIBURU BAT: "Filomeno a mi pesar"
KIROL BAT: Buzeoa
JANARI BAT: Mariskoa

IGNACIO MUGERZA PERELLO



EA

- ◆ **Elgoibarren zer dago faltan? eta zer sobran?**
- Elgoibarri bitzta kalitatea falta zaio, gune berdeak, paseatzeko lekuak eta parkeak. Sobran berriz, Deba ibaiko zikinkeria.
- ◆ **Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? eta zein izkutatuko?**
- Ez nioke ezer ezkutatuko. Elgoibarko inguruneak oso ederrak dira, herria, berriz, nahiko kaskarra, hobetzeko asko dauka.
- ◆ **Defini ezazu zure burua bi hitzetan.**
- Bizitzeko gogoia.
- ◆ **Zein da azken aldian entzun duzun berririk onena?**
- Nire emaztea haurdun zegoela.
- ◆ **Aukera emango balizute zer aldatuko zenuke zure bizitzan?**
- Ezer ere ez.
- ◆ **Zein egunkari irakurtzen duzu?**
- Ez ditut asko irakurtzen, baina igandetan Diario Vasco eta Euskaldunon Egunkaria.
- ◆ **Norekin emango zenituzke pare bat ordu hizketan?**
- Nire aitona zenarekin.
- ◆ **Zein da gehien baloratzen duzun eskubidea?** - Askatasuna.
- ◆ **Erretzailea al zara?** - Ez.
- ◆ **Praktikatzen al duzu kirolik? zein?**
- Bai. Buzeoa, mendizaletasuna eta soinketa.
- ◆ **Erabiltzen al duzu telefono mugikorrik?** - Ez, ezta pentsatu ere.
- ◆ **Etxeko lanik egiten al duzu? zein?** - Bai, emazteak eta biok lanak erdibana egiten ditugu. Nik, batez ere, garbiketa egiten dut.
- ◆ **Emaguzu arrazoi bat ekainaren 13an zuri botoa emateko.**
- EA alderdiaren izenean aurkezten naizen arren independentea naiz, lan egiteko gogo handia daukat eta elgoibartarra naiz, horra hiru arrazoi botua niri emateko. Gainera, herritarren laguntzarekin gauza asko egin dit-zakegu.

Legealdirako programa

■ DENOK GARA ELGOIBAR

Ezin da herri bat eraiki guztion partehartzerik gabe eta horregatik denon laguntza behar dugu. Gazteok eta zaharrenek, elkarrekin lan eginez, mende berriari behar den progresismoarekin aurre egingo diogu.

■ LANA LEHENTASUNA

Langabeziaren aurka borrokatu behar dugu. Autoenplegua bultzatuz, eta lantegi berriak sortzeko baldintza egokiak eskainiz.

■ ETXEBIZITZA

Elgoibartarrok etxebizitza eskuragariagoak behar ditugu. Espekulazioaren aurka borrokatuz eta dagokionean babes ofizialeko etxeak eraikiz, beti ere ingurugiroa errespetatuz.

■ EUSKARA

Euskararen normaltasunaren bidean lan egingo dugu. Kanean, Udalean, irakaskuntzan eta lanean euskaldun izaten jarraitu ahal izateko.

■ BIZITZA KALITATEA

Gure herriari bizitasuna eman nahi diogu, kultur eskaintza egokiak, kirolak eskatzen dituen instalazioak eta aisialdirako guneak bultzatuz.

■ INGURUGIROA

Ingurugiro Batzordea bultzatzea ezinbestekoa da, eta baita dauden legeak aplikatzea ere.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak . . . 943 461111
 Txanda hartzeko . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . 943 032800
 Odol Emaileak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
 PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10
 Taxi geltokia . . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . 943 742158
 Mendaroko Udala . . 943 756100
 Ongizate zerbitzua . . 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa . . . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa . . 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola . . . 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . 943 740296
 Zaharren Biltokia . . 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola . . . 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre . . . 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea . . . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco . . . 943 74 40 73
 El Correo Español . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia . . 943 74 34 74

28

ostirala

.....

19:30 HERRI ESKOLAKO JAIALDIA
 Herriko Antzokian

22:15 ZINE KLUBA
 "Dioses y monstruos"

22:30 KULTUR ERROTA
 Jabier Muguruza kantaria
 eta Joxean Artze poeta
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra
 Kultur Etxeko sotoan
 Sarrera: 500 pta.

29

larunbata

.....

9:00 EHIZA TXAKURREN LEHIAKETA
 "Trinitate sari nagusia"

Antolatzailea:
 La Union Elkarte
 Albitxurin

13:00 EUSKAL PRESOKA EUSKAL HERRIRA MARTXARI ONGI ETORRIA
 Madalan

13:30 KALEJIRA eta MANIFESTAZIOA

Ondoren ekitaldia plazan:
 Dantzariak, bertsolariak,
 presoen senideei omenaldia
 Plaza Handian

14:45 HERRI BAZKARIA
 Madalako parkean
 Antolatzailea: Debabarrenek
 o Presoen Aldeko Herri
 Plataformak

19:30-22:15 ZINEA
 "La vida es bella"

30

igandea

.....

19:30-22:15 ZINEA
 "La vida es bella"

31

astelehena

.....

22:15 ZINEA

"La vida es bella"

2

asteazkena

.....

17:30 HITZALDIA

Gaia: "Gure oroimena
 ulertzeko giltzarriak"
 Hizlaria: Adindu Taldea
 Antolatzailea: Elgoibarko
 Jubilatuen Biltokia
 Jubilatuen Biltokian

4

ostirala

.....

18:30 ODOL ATERALDIA

Pedro Migel Urruzuno 8an

19:00 ARKU JAURTIKETA IKASTAROA

Antolatzailea:
 Udal Kirol Patronatua
 Mintxetan

22:30 ALBOKA MUSIKA TALDEA

Antolatzailea: Musika eta
 Dantza fundazioa
 Herriko Antzokian

ZINEA



Zuzendaria: Roberto Benigni.
Antzezleak: Roberto Benigni,
Nicoletta Braschi, Giorgio Cantarini.

La vida es bella

Guidoren (Roberto Benigni) ametsa liburudenda bat izatea da. Bere ametsa betetzeko diru bila buru belarri dabilen bitartean faxismoak eta bere jarraitzaileek italiar gizartean nagusitzea lortuko dute. Guidok aurre egingo die eta bere familia eta bera kontzentrazio zelai batera bidaliko dituzte. Imaginazioaz eta umoreaz baliatu beharko du bere familiako egoera krudel horretatik ateratzeko.

TRINITATE JAIEN EGITARAUA

LARUNBATA, 29

- 9:00** Ehiza Txakurren lehiaketa. Albitxurin.
- 10:30** Barrakak dohainik umeentzat
- 16:00** XV. Xake Txapelketa. Leku-eder parkean
- 17:00** Plaza Handian, Musikeskolako ikasleen dantza jaialdia. Udalaren Txistulari Taldeak eta Haritz Dantari Taldeak lagunduta.
- 23:00** "Trinitateko dantzaldia", *Udal Musika Bandarekin*. Plaza Handian.
- 23:00** *Norbait, Eraso eta Brutal Thin* taldeen kontzertua. Maalako parkean.

IGANDEA, 30 TRINITATE EGUNA

- 9:00** Diana Udal Txistulari Banda rekin.
- 10:30** IV. Artisau Azoka. Leku-Eder parkean.
- 11:00** Meza Nagusia. Parrokiako abesbatzaren laguntzaz.
- 11:00** Bapateko VI. Xake Txapelketa. Kultur Etxean.
- 12:00** Haurren Tanborrada, Musikeskolako Bandaren laguntzaz.
- 17:00** Erraldoi eta buruhandien kale jira Elgoibarko dultzaineroekin.
- 18:00** Azkona pailazoak. Nafarroa Plazan.
- 19:30** *Tirri Tarra Show*. Plaza Handian.

● Ibilaldira joateko txartelak salgai

Elorrioren ekainaren 6an, domeka, egingo den *Ibilaldia 99ra* joateko autobus txartelak, Elgoibako Izarrak Ubirtarte 4an duen egoitzara joanez edo 943 74 16 26 telefonora deituz eskura daitezke. Elkarteko bazkideek 700 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 1000 pezeta. Mendaron, Ormola edo Txirristaka tabernetan jarriko dira salgai. Autobusak, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek antolatuta ditu, Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz.

● "Oroimena ulertzeko giltzarriak" hitzaldia Jubilatuen Biltokian

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak, Gizartekintzaren laguntzaz, "Gure oroimena ulertzeko giltzarriak" hitzaldia antolatu du ekainaren 3rako, asteazkena. Adindu taldeko kideak izango dira hizlariak eta gaien interesaturik dagoen jende guztiari dago zuzenduta. Hitzaldia, Jubilatuen Biltokian, arratsaldeko 17:30etan hasiko da.

● Herri Eskolako jaialdia, gaur, hilak 28

Herri Eskolako haurrek kurtso bukaerako jaialdia eskainiko dute gaur, hilak 28, Herriko Antzokian. 2 urtetik 12 urtera bitarteko haurrek parte hartuko dute. *Oh Bugi Bugi* eta *Kilimak* kantak, *Doctor aspirina* antzez-lana edo *Aqua* dantza izango dira ikusgai. Jaialdia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

● Nathalia Mellado ETBko Izar Bila saioko finalean ekainaren 2an

Nathalia Mellado abeslari elgoibartarra *Izar Bila* ETB1eko saioaren finalera iritsi da. Asteazkenean, ekainak 2, emitituko dute saioa, eta Nathaliak, Paloma San Basilioren *Bizitza* eta Marta Sanchezen *Mas de lo que pedi* abestiak kantatuko ditu. Bilboko Arriaga antzokian grabatu zen saioa eta Nathaliak esan digunez, "beteta egon zen antzokia, Ines Sainz modeloa, Imanol Etxeberria futbolaria, Txema Montoya eta beste famatu mordo bat izan ziren bertan".

● Odol ateraldia ekainaren 4an

Odol emaleen Elkartetik aditzera eman nahi dute, datorren ostiralean, hilak 4, odol ateraldia izango dela Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Aurrez deitutako guztiei eta bereziki 18 urtetik gorako gazteei odola ematea oso garrantzitsua dela gogorazi nahi diete.

T X A N D A K

FARMAZIAK

- | | Egunez | Gauez |
|-----------|--|----------|
| 29 | Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean) | |
| 30 | Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean) | |
| 31 | Escala | Escala |
| 1 | Bidasolo | Bidasolo |
| 2 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) | |
| 3 | Anduaga | Anduaga |
| 4 | Yudego | Yudego |

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Herriko enparantza, 4 Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

30 igandea Doña Mercedes

KENSINGTONek AURKEZTEN DU:

IKASFUN®

UZTAILEKO IKASTAROAK

| ADINA | MAILA |
|-------|--------------|
| 6-8 | Hasi berriak |
| 9-11 | Oinarrizkoa |
| 12-13 | |
| 14-16 | Ertaina |

Ordutegia: 9:30etatik 13:30etara

INGELESA - FRANTSESA* - ALEMANA*

- Denbora libreko ekintzak
- Ingelesa egoera errealetan
- Lehiaketak eta txapelketak
- Kirola
- Argazki rally-ak
- Ekintza artistiko/sortzaileak

* Eskaeraren arabera

**GUZTIZ
BERRIA**

KENSINGTON
P. Muguruza etorbidea, 8
Tel. 943 74 02 36/ 74 35 12
E-posta:
kensington@redestb.es

Deitu eta hitz egingo dugu!

Agurrak

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Pertsona behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. ☎ 943 74 35 31
- ◆ Kamareroa behar da udan Deba-ko taberna batean lan egiteko. ☎ 943 19 23 77
- ◆ Neska bat behar da barran eta sukaldean lan egiteko. ☎ 943 74 37 60
- ◆ Asteburuetan dendan lan egiteko neska behar da. Interesatuak dei ezazue lehenbailehen. ☎ 943 74 27 58
- ◆ Neska gaztea behar da aste bukaeretan ogitaratekoak egiteko. ☎ 600 20 87 10
- ◆ Esperientziadun kamareroa eta kamarera behar dira 20-30 urte bitartekoak. Elgoibarko tabernarako. ☎ 630 61 76 11
- ◆ Kamarera behar da jatetxe batean lan egiteko. 6 hilabeterako. ☎ 943 19 24 12 (20:30etik 22:00etara. Kontxi)
- ◆ Esperientziadun kamareroa behar da. ☎ 943 74 36 02 (10:00-13:00/15:00-19:00)

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Neska eskaintzen da tabernak, lokalak eta dendak goizez garbitzeko. ☎ 943 17 29 20.
- ◆ Edadetuak zaintzeko esperientziadun emakumea eskaintzen da. ☎ 943 74 25 39 (Maria Luisa)
- ◆ Umeak edo edadetuak zaintzeko emakumea eskaintzen da. ☎ 943 75 51 93 (Rosa)
- ◆ Nire burua eskaintzen dut bulegoak garbitzeko edo edadetuak zaintzeko. ☎ 943 74 06 85
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko, edo umeak zaintzeko, orduka. ☎ 943 58 40 31
- ◆ Klinika laguntzaile euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Esperientzia eta informeak ditut. ☎ 943 74 04 86
- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauzez. ☎ 943 74 27 78
- ◆ Gaixoak edo edadetuak zaintzeko esperientziadun emakume euskalduna eskaintzen da. ☎ 943 74 01 57 (Gauzez deitu)
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. ☎ 610 65 34 52 (20:00etatik aurrera)

◆ Zorionak **Elena Garateri** gaur urteak bete dituelako. Ia horrenbeste kurtsilo informatikorekin tartetxoren bat hartzen duzun kafe goxo-goxo bat prestatzeko. Familiakoen partez.

◆ Zorionak **Danele Sarriugarteri** bertso lehiaketan aipamena lortu duelako. Ikastolako 4. maila osoaren eta bereziki Iria eta Ileniaren partez.

◆ Zorionak zure urtebetetzean, zorionak eta urte askotarako, zorionak belarririk tiratzean... **Gregorio Arregiri**, hilak 25ean urteak bete zituelako,

◆ Zorionak **Mireiari** eta **Idoiari**, maiatzaren 30ean 10 urte beteko dituztelako. Mirenen partez.

◆ Zorionak **Sara Gurrutxagari**, maiatzaren 26an 11 urte bete zituelako. Ikastolako 5. maila osoaren eta bereziki Amaia, Alazneren eta Itsasoren partez. Zorionak baita ere beste lagun baten partez.

◆ Zorionak **Andoniri**, hilaren 25ean urteak bete zituelako. Itsasoren partez.

◆ Zorionak **Izaskun Moredari** eta **Monica Viñarasi**, urteak beteko dituztelako. Baita **Julen SanJuani** ere. Zuen lagunen partez.

◆ Zorionak **Idoia Gineari**, maiatzaren 30ean 10 urte beteko dituelako. 4. mailako eta bereziki Itsasoren, Ileniaren, Maidarren eta Eneritzen partez.

◆ Zorionak **Andoni Gabilondori**, bere arrautza kaxaren urtebetetzean, hau da, 12. urtebetetzean. Ikastolako 6. mailako partez.

◆ Zorionak **Saioa de Pedrori**, 12 urte bete dituelako. Ikastolako 6. mailako partez.

◆ Zorionak **AXJ** zuen ezkontzako lehen urtebetetzean.

◆ Zorionak **Oier Contrerasi**, xake txapelketa irabazi zuelako. Bere bihotzeko lagun partez.

◆ Zorionak **Judith Zabalar**, hilaren 21ean urteak bete zituelako. Ikastolako DBH 2ko neska-mutilen partez.

◆ Zorionak **Lidia Suarez**, hilaren 24an 13 urte bete zituelako. Sarriaren eta Rocioren partez.

◆ Zorionak **Pato Lucas Ansolari**, maiatzaren 22an urteak bete zituelako. Muxu handi bat Aitorren, Unaiaren, Andoniren eta Ionen partez.

◆ Zorionak **Pilarri** bere 71. urtebetetzean. Berak dakien batzuen partez.

OHARRA:
Merkatu txirikako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.


Agurrak




◆ Zorionak **Itziar Aldalurri**, hilak 5ean 4 urte bete zituelako. Familia osoaren eta bereziki bere neba koldoren partez.



◆ Zorionak **Joneri** ekainaren 2an urtebete egingo duelako. Familia guztiaren partez.




◆ Zorionak **Miren Mugerzari**, hilaren 24an 10 urte bete zituelako. Gurasoen, anaia Aitorren eta amamaren partez. Zorionak baita ere 4. mailako eta bereziki Itsasoren, Ileniaren, Maidarren eta Eneritzen partez. Eta Nerea, Leire eta Enararen partez ere.



◆ Zorionak **Juleni**, maiatzaren 20an 6 urte bete zituelako. Gurasoen eta anaia Jontxuren partez.




◆ Zorionak **Nere**, hilaren 19an urteak bete zenituelako. Familia guztiaren partez.



◆ Zorionak **Luciar**, hilaren 22an 8 urte bete zituelako. Familia guztiaren partez.



◆ Zorionak **Sara**, hilaren 21ean 2 urte bete zituelako. Arriolaren partez.



◆ 21. urtebetetze egun zorionsua pasa dezala opa diegu **Olatzi**. Familia guztiaren partez.




◆ Zorionak **Ion Fernandez**, hilaren 24an urtebete egin zuelako, familia osoaren partez. Zorionak baita **Juantsori** ere, datorren astelehenean urteak beteko dituelako.

◆ Zorionak **Ioiritzi**, ekainaren 1ean 14 urte beteko dituelako. Gurasoen eta familia osoaren partez. Ondo pasau.




◆ Zorionak **Mireiari**, hilaren 30ean 10 urte beteko dituelako. Maialenen, Endikaren, Itsasoren eta etxeko guztien partez.




◆ Zorionak **Janire Gorritiri**, hilaren 18an 8 urte bete zituelako. Familia osoaren partez muxu handi bat.



◆ Zorionak **Rociori** gaur 10 urte bete dituelako. Bere ahizpa Sarriaren eta gurasoen partez. Ondo pasatu. Zorionak baita ere **Pedrori**, hilaren 21ean urteak bete zituelako. Alaben eta emazte Juaniren partez musu handi bat.




◆ Zorionak **Rubeni**, hilaren 30ean 12 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Jokin Arriolari**, hilaren 26an urtebete egin zuelako. Gurasoen eta anaia Beñaren partez.




◆ Zorionak **Vanesari**, hilaren 27an 7 urte bete zituelako. Familia guztiaren partez.



◆ Zorionak **Ion Fernandez**, hilaren 24an urtebete egin zuelako, familia osoaren partez. Zorionak baita **Juantsori** ere, datorren astelehenean urteak beteko dituelako.



◆ Zorionak **Ion Fernandez**, hilaren 24an urtebete egin zuelako, familia osoaren partez. Zorionak baita **Juantsori** ere, datorren astelehenean urteak beteko dituelako.



◆ Zorionak **Ion Fernandez**, hilaren 24an urtebete egin zuelako, familia osoaren partez. Zorionak baita **Juantsori** ere, datorren astelehenean urteak beteko dituelako.

Elgoibarko Herri Institutuko eskaintza



LOGSE BATXILERGOAK A-D

- ▲ Natur eta Osasun Zientziak
- ▲ Giza eta Gizarte Zientziak
- ▲ Teknologikoa



ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ▲ Automozioa, ibilgailuen elektromekanika (2.000 ordu)
- ▲ Txapa eta pintura (2.000 ordu)
- ▲ Barne Merkataritza (1.400 ordu)
- ▲ Erizaintza laguntzailea (1.400 ordu) Eskaintza berria



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

- ▲ Administrazioa eta Finantzak (2.000 ordu)
- ▲ Ibilgailu Autopropulsatuen Mantenua (2.000 ordu)

Aurreinskripzioa: ekainaren 1etik 9ra

Tel: 943 74 80 19 · Faxa: 943 74 82 30 · E-posta: ifp.elgoibar@eas.servicom.es

ALBOKA



KONTZERTUA

HERRIKO ANTZOKIAN

ekainak 4, ostirala
gaueko 22:30ean



Udalaren Musika
eta Dantza Fundazioa



Aldundia



Haritz
Euskal Dantzari Taldea